



**LANEKO
GAIXOTASUN
SUSMOEN
JAKINARAZPENAK
EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN**

2018. URTEKO TXOSTENA
EBOLUZIOA (2008-2018)



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

Euskadi, auzolana, bien común



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LAN ETA JUSTIZIA SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

LANEKO GAIKOTASUN
SUSMOEN JAKINARAZPENAK
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.
2018. URTEKO TXOSTENA. EBOLUZIOA (2008-2018)



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea

Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales

BARAKALDO, 2019

Edizioa:

1.a, 2019ko iraila

Tirada:

50 ale



OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/ Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Internet:

www.osalan.euskadi.eus

Argitaratzailea:

OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/ Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Egileak:

IDIAZABAL GARMENDIA, Jasone (Medikua. Laneko Osasun Unitatea. OSALAN)

LÓPEZ ECHÁNIZ, Idoia (Epidemiologiako teknikaria. Laneko Osasun Unitatea. OSALAN)

SAMPEDRO GARCÍA, Henar (Epidemiologiako teknikaria. Laneko Osasun Unitatea. OSALAN)

Maketazioa:

The Old Market 56. C/ Ribera, 1, 1ºD. 48005 Bilbao

Azaleko diseinua:

The Old Market 56. C/ Ribera, 1, 1ºD. 48005 Bilbao

Fotokonposizioa:

Estudios Durero. Polígono Ugaldeguren III, Parcela 18 - 4. 48170 Zamudio. Bizkaia

Inprimaketa:

Estudios Durero. Polígono Ugaldeguren III, Parcela 18 - 4. 48170 Zamudio. Bizkaia

LG:

BI-02436-2019

AURKIBIDEA

1.	SARRERA eta HELBURUAK	7
2.	METODOA	9
3.	EMAITZAK	13
3.1	Laneko Gaixotasun Susmoen (LGS) Jakinarazpenen Bilakaera 2008-2018	13
3.2	2018. Urteko Laneko Gaixotasun Susmoen (LGS) Jakinarazpen Guztien Analisia	20
3.3	2018. Urtean Izapidetutako LGS Jakinarazpenen Analisia	23
4.	KONKLUSIOAK	38

Laburdurak

- AE** Arreta espezializatua
- EAE** Euskal Autonomia Erkidegoa
- ESI** Erakunde sanitario integratua (Osakidetzakoa)
- EUSTAT** Euskal Estatistika Erakundea
- GNS** Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena
- GSIN** Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala
- GSML** Gizarte Segurantzako mutualitate laguntzaileak
- IM** Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoa
- JESN** Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala
- KPZ** Kanpoko prebentzio-zerbitzua
- LG** Laneko gaixotasuna
- LGS** Laneko gaixotasunaren susmoa
- LGSA** Laneko gaixotasunaren susmoaren adierazpena
- LM** Lehen mailako arreta
- O** OSAKIDETZA – Euskal Osasun Zerbitzua
- PZ** Prebentzio-zerbitzua
- PZP-PZM** Prebentzio-zerbitzu propioa - Prebentzio-zerbitzu mankomunatua

1. SARRERA ETA HELBURUAK

Lanexo gaixotasunaren susmoa (LGS) jakinarazteko prozedurak 10eko 1299/2006 Errege Dekretuan du oinarri juridikoa. Dekretu horrek Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartu eta horien jakinarazpen eta erregistroa egiteko irizpideak ezartzen ditu.

Errege-dekretu horrek agintzen du aldatu egingo dela jakinarazteko eta erregistratzeko sistema, eta prozedura hori susmo-diagnostikoa egin dezaketen langile medikoekin lotuko dela, laneko gaixotasunen deklarazioa hobetze aldera, Laneko gaixotasuntzat jo daitezkeen gaixotasunen jakinarazpena izeneko 5. artikulua bidez.

Artikulu hori Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) egokitzeko, LANEKO GAIXOTASUNEN SUSMOAK JAKINARAZTEKO sistema bat eratu da, eta haren arabera, Osalan - Laneko Seguratasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Laneko Osasunaren Unitateak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoen osatutako organoak izango ditu arlo horretako eskumenak.

Sistema hori honako arau hauen mende dago: “2007ko abenduaren 26ko Jarraibidea, Osasun sailburuordearena, Osalaneko zuzendari nagusiarena eta Osakidetzako zuzendari nagusiarena, laneko gaixotasuntzat jo daitezkeen edo jatorria lanbidean dutela susmatzen den gaixotasunak jakinarazteko prozedurari buruzkoa” eta “2007ko abenduaren 11ko Ebazpena, Osalaneko zuzendari nagusiarena, Osalaneko Laneko Osasunaren Unitateko prebentzio-zerbitzuetatik laneko gaixotasunen susmoak jakinarazteko prozedura ezartzen duena” (2008-01-17ko EHAA, 12. zk.).

Euskal Autonomia Erkidegoan, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuko medikuak eta prebentzio-zerbitzuetako medikuak sartuko dira prozedura horretan, eta haiek eman ahal izango dute susmo-diagnostikoa.

LGS jakinarazteko prozedura 2008an jarri zen abian EAEn. “Laneko gaixotasunaren susmoaren adierazpena (LGSA)” aplikazio informatikoaren bidez erregistratzen eta kudeatzen dira susmo-jakinarazpenak. Aplikazio hori dute Laneko Osasunaren Unitateak, Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoen eta Gizarte Segurantzak EAEn dituen 6 Mutualitate Laguntzaile (GSML) nagusiek.

Jakinarazpenak dagozkien GSMLei igortzen zaizkie Internetez aplikazioaren bidez, amiantoa agente eragile duten gaixotasunak izan ezik, horiek GSINera igortzen baitira, “EAEko Administrazio Orokorraren, Osakidetzaren eta Osalaren arteko lankidetzaren hitzarmen espezifikoan” xedatzen den eran.

Jakinarazpen-prozedura euskal osasun-sistema publikoan aurkeztu eta ezagutarazi zen, zehazki, 2011n Osakidetzaren Lehen Mailako Arretan, osasun-etxeetara bisitak eginez, eta 2012an eta 2018an Osakidetzaren Arreta Espezializatuan, laneko gaixotasun posibleak diagnostikatzeko ardura duten ospitale-zerbitzuetan.

1. SARRERA ETA HELBURUAK

Osakidetzaren historia klinikoak bilaketa-aukera bat duen alerta-sistema bat du, eta hori aktibatu egiten da laneko gaixotasuntzat (LG) jo daitezkeen gaixotasunen diagnostikoak ematen direnean, Osakidetzako langile fakultatiboak LGS telematikoki jakinarazteko prozedura hasi ahal izateko.

LGSak jakinarazteko sistema horren xedeak honako hauek dira, beste batzuen artean:

- Laneko gaixotasunen adierazpenak erraztea.
- Sistema publikoko osasun-zerbitzuek eta prebentzio-zerbitzuek laneko gaixotasunak neurri handiagoan identifikatzea eta jakinaraztea.
- Langileek LGen arloan Gizarte Segurantzaren babesa jasotzeko duten eskubidea sendotzea.
- Osasunari buruzko datuen iturri bat izatea, laneko osasunaren esparruan prebentzio-programak prestatu ahal izateko.

2. METODOA

Txosten honetan, LGSen jakinarazpenen ezaugarri nagusien azterketa deskriptiboa egin zen, 3 atal nagusitan banatuta. Alde batetik, 2008tik 2018ra bitarte jasotako jakinarazpenen kopuruaren bilakaera aztertu zen. Bigarrenik, 2018an jasotako jakinarazpen guztien ezaugarri nagusiak deskribatu ziren, eta, hirugarrenik, izapidetu eta baloratzeko GSMLei eta GSINri igorritako jakinarazpenei buruzko azterketa deskriptibo zehatza egin zen.

2.1 DATU-ITURRIA ETA AZTERTUTAKO DENBORA-TARTEA:

LGSen jakinarazpenei buruzko azterketa-txosten hau egiteko, espedientea izapidetzeko erabilitako LGSA aplikazio informatikoan sortutako fitxategia izan zen datu-iturria. Horrez gainera, informazio-iturri gehigarri izan ziren EAEko biztanleria-datuen zenbatespena, EUSTAT erakundeak argitaratuak; EAEko enpresei buruzko informazioa, Gizarte Segurantzak Osalani emandakoa; eta Osakidetzako ESI bakoitza osatzen duen osasun-zentroen zerrenda.

Jasotako jakinarazpenek denborak aurrera egin ahala izandako bilakaera, haien jatorria eta LG gisa onartu ziren ala ez aztertzeke, 2008tik 2018ra bitarteko datuak erabili ziren. Jatorriaren arabera banakatutako jakinarazpenak aztertzeke, berriz, alde batera utzi ziren denbora-tarte horretako lehen 4 urteetako jakinarazpenak, kalitatearen ikuspegitik alde handia zutelako hurrengo urteetako datuekin.

2018ko jakinarazpenen azterketa deskriptiboa egiteko, LGSA aplikazioan 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitarte erregistratutako jakinarazpenetako informazioa erabili zen.

Ebatzitako espedienteak zenbatu ahal izateko, 2019ko apirilaren 15era bitarte jasotako datuak bildu ziren. Jaso dira, gerora, 2018. urtea baino lehenagoko espedienteen jakinarazpenen gaineko beste ebazpen batzuk; beraz, posible da onartutakoen eta baztertutakoen azken kopurua aldatu izana.

2. METODOA

2.2 AZTERTUTAKO POPULAZIOA, SARTZEKO IRIZPIDEAK ETA KANPORATZEKO IRIZPIDEAK:

EAEko enpresetako langile guztiak sartu ziren aztertutako populazioan, langileen bizitokia EAetik kanpo bazegoen ere.

Jakinarazpenak izapidetzeko prozeduran, aurretiazko zenbait egiaztapen egin ziren, azkenean LGSak izapidetuko ziren ala ez erabakitzeko.

2008tik 2018ra bitarte jasotako jakinarazpenen kopuruaren bilakaeraren azterketan, eta 2018ko jakinarazpen guztien azterketan, jasotako LGS guztiak sartu ziren.

2018an GSMLei eta GSiNri izapidetutako jakinarazpenen azterketa deskriptiboan, alde batera utzi ziren 1299/2006 EDko laneko gaixotasunen koadroan jaso gabeko diagnostikoak zituztenak, aplikazioan erregistratu baino lehen LG gisa aitortuta zeuden jakinarazpenak, aurretik izapidetutakoak eta lanbideko kontingentzien ondorioz prestazioa jasotzeko eskubiderik ez zuten langileenak. Horiez gainera, baztertu egin ziren prozedura bertan behera utzi nahi izan zutenen eta beren lan-ibilbideari buruzko informaziorik eman ez zituzten pertsonen jakinarazpenak.

Azken puntu horri buruz, esan behar da azterketan sartu zirela, Gizarte Segurantzza zuten egoera alde batera utzita, erretiratutako pertsonen eta langabezia-egoeran zeuden pertsonen jakinarazpenak, gaur egun prestazioa jasotzeko eskubiderik izan ez arren, lan-egoera aktiboko langile zirenean LG aitortzeko eskubidea baldin bazuten.

2.3 AZTERTUTAKO ALDAGAIK ETA ERABILITAKO MAIZTASUN-NEURRIAK:

Azterlana egiteko jaso ziren aldagai nagusiak honako hauek izan ziren:

DIMENTSIOA	ALDAGAI DESKRIBATZAILEA
Pertsona	Sexua Adina
Gaixotasuna	Diagnostikoa (GNS, gaixotasun multzoa, 1299/2006 ED multzoa) Agente eragilea
Lana	Enpresaren kokapena (lurraldea) JESN Sektorea Jatorria
Jakinarazpenen Jatorria	ESla Prebentzio Zerbitzua
Ebazpena	Onartzea/Ez onartzea

Jakinarazpenen jatorria bikoitza izan zen, eta izena eman zien bi jatorriei: Osakidetza (O) jatorria eta Prebentzio Zerbitzua (PZ) jatorria. O jatorria, bere aldetik, honako hauetan banatu zen: Lehen Mailako Arreta (LM), Arreta Espezializatua (AE), eta Ikuskaritza Medikoa (IM). PZ jatorria, bere aldetik, Prebentzio Zerbitzutik (PZ) zetozenen eta Laneko Osasunaren Unitatetik (LOU) zetozenen artean banatu zen.

Prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboen jakinarazpenen jatorria aztertzeke, jasotako jakinarazpenak PZ motaren arabera multzokatu ziren: alde batetik, kanpoko prebentzio-zerbitzuetatik (KPZ) zetozenak, eta, bestetik, prebentzio-zerbitzu propioetatik edo mankomunatuetatik (PZP-PZM) zetozenak. Osakidetzako langile fakultatiboen jakinarazpenen jatorria aztertzeke, zer osasun-etxetatik zetozen kontuan hartu eta ESika multzokatu ziren.

2. METODOA

Jakinarazpenak jarduera-sektoreka aztertzeko, JESN 09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera kodetu ziren, eta bi digitutara multzokatu ziren. Ezin izan zen JESN kodea ezarri 20 jakinarazpenetan, arriskua ez zuelako enpresa bakar batek eragin edo enpresa itxita zegoelako; horrenbestez, jarduera-sektoreka egin zen analisisia 321 jakinarazpenen gainean.

Txosten honetan egindako azterketa deskriptiborako, aztertutako aldian jasotako jakinarazpenetako zenbakiak edo zenbaketak erabili ziren batez ere, eta baita ehunekoak ere. Beste alde batetik, 2008tik 2018ra bitarte jasotako jakinarazpenen kopuruaren bilakaera aztertzeko, tasak erabili ziren, EAEko 16 urtetik gorako populazio orokorra hartuta erreferentzia gisa, aztertutako urte bakoitzean Gizarte Segurantzarekiko afiliazioa edozein izanda ere. Taula eta grafiko gehienetan sexu-aldagaiaren eta jatorri-aldagaiaren arabera banatu ziren emaitzak.

Datuak aztertzeko Excel eta Access 2010 programak erabili ziren, eta grafikoak eta taulak Excel 2010 programaren bidez sortu ziren.

3. EMAITZAK

3.1 LANEKO GAIXOTASUN SUSMOEN (LGS) JAKINARAZPENEN BILAKAERA 2008-2018


2008tik 2018ra, jakinarazpenen intzidentzia handiagoa izan zen bi urtetan, 2010ean (0,523) eta 2012an (0,94). Horietako bakoitzaren aurreko urtearekin alderatuta, bikoitza baino gehiago hazi zen, prebentzio-zerbitzuetatik zetozen jakinarazpenen ondorioz. Jakinarazpenen tasak beheranzko joera izan du 2012 eta 2017 urteen bitartean. Joera hori 2018. urtean eten da, aurreko urteko intzidentzia-indize ia berbera izan baitu. (1. taula)

1. taula. Jakinarazpenen intzidentzia-indizea populazio orokorrean. EAE 2008-2018.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
INTZIDENTZIA TASA (x1.000)	0,136	0,156	0,523	0,426	0,94	0,427	0,378	0,312	0,315	0,246	0,245
JAKINARAZPEN KOPURUA	255	293	984	802	1769	802	706	583	587	459	460

LGS jakinarazpenek, lehen urteetan, gora egin zuten, baina behera egin zuten pixkanaka 2012tik aurrera, 2018ra arte. Intzidentzia-tasak ez du aldaketa handirik 2018. urtean, 2017 urtearekiko.


1. irudia. Jakinarazpenen intzidentzia-indizea eta kopurua biztanleria orokorrean. EAE 2008-2018.



3. EMAITZAK

2009. urteaz geroztik, intzidentzia-tasa, Araban, handiagoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan baino. Hala ikus daiteke 2. irudian. Intzidentzia-tasa, 2012tik aurrera, Bizkaian baino handiagoa izan da Gipuzkoan. Intzidentzia-tasa, 2018an, handiagoa izan zen Bizkaian (0,251 %), eta txikiagoa Gipuzkoan (% 0,237) eta Araban (% 0,238).

2. irudia. Jakinarazpenen intzidentzia-tasa, lurraldeka. EAE 2008-2018.



3.1.1 LGS 2008-2018 BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA


Jakinarazpen-tasaren urte-arte aldaketak, populazio osoari begiratuta, lotura zuzena izan zuen gizonen jakinarazpen-tasak izan zuen aldaketarekin; izan ere, urte guztietan jakinarazpen gehienak gizonenak izan ziren. Emakumeen intzidentzia-tasa, 2018an, ordura arteko handiena izan da. (3. irudia).

3. EMAITZAK

2. taula. LGS jakinarazpenen tasa populazio orokorrean sexuaren arabera. EAE 2008-2018.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
GIZONEN JAKINARAZPEN KOPURUA	206	251	911	668	1636	682	604	492	478	358	311
GIZONEN INTZIDENTZIA TASA x 1000	0,227	0,275	0,999	0,733	1,795	0,752	0,670	0,546	0,532	0,398	0,345
EMAKUMEEN JAKINARAZPEN KOPURUA	49	42	75	135	134	121	105	91	109	101	149
EMAKUMEEN INTZIDENTZIA TASA x 1000	0,051	0,043	0,077	0,139	0,138	0,125	0,108	0,094	0,113	0,104	0,153

3. irudia. LGS jakinarazpenen tasa populazio orokorrean sexuaren arabera. EAE 2008-2018.




3. EMAITZAK

3.1.2 LGS 2008-2018 BILAKAERA, SORBURUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA

Jakinarazpen gehien-gehienetan jatorrian prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboak izan dira urte guztietan, eta horien zenbatekoa askoz ere handiagoa izan da Osakidetza langile fakultatiboek sortutakoak baino, bai AE jatorrian, bai LM jatorrian.

2017. urtearekin alderatuta, EAEko jakinarazpenen kopuru osoa, 4. irudian ikus daitekeen moduan, mantendu egin zen 2018. urtean; zehazki, Osakidetza sorburu izandako susmoak % 27,7 igo ziren, baina Prebentzio Zerbitzuan sorburu izandakoen % 12,1eko beherakadak konpentsatu zuen.

4. irudia. Jakinarazpen-kopurua jatorriaren arabera. EAE 2008-2018.



3. taulan, 2012az gerostik jasotako jakinarazpenak agertzen dira, jatorri bakoitzaren arabera sailkatuta. Urte guztietan, Prebentzio Zerbitzua izan da, alde handiz, jatorri nagusia; hala ere, jakinarazpenen kopuruak behera egin du urte urte. Beherakada % 11koa izan da 2018an, aurreko urtearekiko.

3. EMAITZAK

Azken lau urteetan, bigarren jatorria AE izan da, eta 145 jakinarazpen izan ditu 2018an, kopururik handiena. LM jatorriak bera egin du azken urteetan, eta 6 jakinarazpen izan ditu 2018an.

3. taula. Jakinarazpen-kopurua jatorriaren arabera. EAE 2012-2018.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
PREBENTZIO ZERBITZUA	1690	716	643	512	440	340	304
ARRETA ESPEZIALIZATUA	18	21	25	51	118	90	145
LEHEN MAILAKO ARRETA	47	46	26	12	26	14	6
LAN OSASUN UNITATEA		1	1	1	1	7	1
IKUSKARITZA MEDIKOA	2	18	9	7	2	8	4

4. taulan, azken 7 urteotan prebentzio-zerbitzuetatik jasotako jakinarazpenak sailkatu dira jatorriaren arabera, eta KPZetatik edo PZP-PZMetatik jaso ziren adierazi da.

Kanpoko prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboak dira jakinarazle nagusiak urte guztietan. KPZ jakinarazpenen kopurua nabarmen handitu zen 2012an, hipoakusiaren diagnostiko gailenaren jakinarazpenen ondorioz. Ez zuten hainbesteko gorabeherarik izan prebentzio-zerbitzu propioek eta mankomunatuak.

4. taula. Jakinarazpenen jatorria PZ motaren arabera. EAE 2012-2018.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUAK	1659	682	598	457	402	312	265
PREBENTZIO ZERBITZU PROPIOAK ETA MANKOMUNATUAK	29	31	35	43	38	28	39

3. EMAITZAK

5. taulan, ESI-ek jasotako jakinarazpenak agertzen dira. BARRUALDE-GALDAKAO, BILBO-BASURTO eta EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETA ESI-ak izan ziren Osakidetza jatorriko LGS-en % 80ren sorburu.

LGS jakinarazpenei begiratuta, kopurua, 2016. urteaz geroztik, konstantea da bi ESI hauetan: BARRUALDE-GALDAKAO ESI eta BILBAO-BASURTO ESI.

Jakinarazpenen kopuruak gora egin du, aurreko urtearekiko, bi ESI hauetan: EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETA ESI eta DONOSTIALDEA ESI. Nabarmentzekoa da jakinarazpenen kopuruak, 2018an, behera egin duela ARABA ESI-an, aurreko urteekiko.

5. taula. Jakinarazpenen jatorria, ESI-ka. EAE 2012-2018.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
ARABAKO ESI	19	12	10	7	12	5	1
BARAKALDO-SESTAOKO ESI	10	3	2	1	6	1	3
BARRUALDE-GALDAKAKO ESI	12	6	12	15	35	35	41
BILBAO-BASURTOKO ESI	2	2	2	16	49	31	51
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI	4	8	8	14	24	7	29
URIBEKO ESI	4	6	2		3	6	1
DEBAGOIENeko ESI	10	11	7	2	4		
BIDASOAKO ESI			1				
DEBABARRENAKO ESI	6	3	2		4	2	1
DONOSTIALDEAKO ESI	-	4	3	4	2	8	14
GOIERRI-UROLA GARAIOKO ESI	3	13	7	5	3	6	10
TOLOSALDEAKO ESI	1			1		1	3
Ez dago jasota	9	18	9	7	4	3	


3. EMAITZAK

3.1.3 LGS 2008-2018 BILAKAERA, LANEKO GAIXOTASUNEN AITORPEN-GRADUAN.

Hamaika urteetan, aitortutako laneko gaixotasunen batezbestekoa % 46koa da. 5. irudian ikus daitekeen moduan, eutsi egin zaio sexuaren arabera onartutako jakinarazpenetan dagoen ehuneko-aldeari. Horren arrazoi nagusia da handiagoa izan dela onartutakoen ehunekoa gizonengan, eta txikiagoa emakumeengan. Horren salbuespen izan dira 2015 eta 2017 urteak, berdindu egin baitira onarpenak bi sexuetan.

Emakumeei onartutako gaixotasunei begiratuta, esan behar da behera egin duela ehunekoak LGS-n, % 57 onartu baitziren 2017an, eta % 39 onartu dira 2018an. Diagnostikoen aldakortasuna izan daiteke fluktuazio horren arrazoa.


5. irudia. Onartutako jakinarazpenen ehunekoak sexuaren arabera. EAE 2008-2018.



3. EMAITZAK

Bi jatorrietan LG jakinarazpenek izandako onarpenei begiratuta, ESI-ek onartutako jakinarazpenen proportzioa handiagoa izan zen prebentzio-zerbitzuen jatorrian. Horrela ikus daiteke 6. irudian. Susmoen onarpen-ehunekoak, bi jatorrietan, behera egin zuen 2018. urtean, 2017. urtearekiko.

6. irudia. Onartutako jakinarazpenen ehunekoa jatorriaren arabera. EAE 2008-2018.



3.2 2018. URTEKO LANEKO GAIKOTASUN SUSMOEN (LGS) JAKINARAZPEN GUZTIEN ANALISIA

Guztira, LGS jatorriko 460 jakinarazpen jaso ziren 2018. urtean zehar; horietatik, prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboak izan ziren 304, Osakidetza langile fakultatiboak 155, LOU izan zen horietako 1en jatorria, eta IM-tik jaso ziren 4 jakinarazpen. Osakidetza sortu ziren 2018ko LGS guztien % 34, eta PZ izan zen gainerako % 66en jatorria.

2018an ez zen jaso 1299/2018 EDren II. eranskineko jakinarazpenik, guztiak I. eranskinekoak izan ziren.

2018. urtean, EAEn baimenduta dauden PZ guztietatik, gutxienez GLS jakinarazpen bat egin zuten 24k, eta gainerakoek ez zuten laneko gaixotasunen susmorik jakinarazi.

3. EMAITZAK

2018an prebentzio-zerbitzuek egindako jakinarazpenei begiratuta, ikusten da 265 KPZ prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboek abiatu zituztela eta PZP-PZMetako langile fakultatiboek abiatu zituztela 39. 6. taulan ikus daitekeen moduan, PZ-en adierazpenak ez ziren homogeenak izan, hiru KPZ-tan abiatu baitziren jakinarazpenen % 72 (kasu guztien % 49 jakinarazi zituen horietako batek)

6. taula. Jakinarazpenen jatorria prebentzi-zerbitzuen arabera. EAE, 2018.

	PREBENTZIO ZERBITZUA	JAKINARAZPEN KOPURUA
KPZ	IMQ PREVENCIÓN	149
	CENFORPRE, S.L.	46
	PREVILABOR 365, S.L.	23
	UNIPRESALUD SOCIEDAD DE PREVENCIÓN, S.L.	11
	ASPY PREVENCIÓN, S.L.	8
	PREMAP SEGURIDAD Y SALUD	7
	MEDICAL PREVENCIÓN XXI, S.L.	6
	MEDICINA DE DIAGNOSTICO Y CONTROL,S.A. (MEDYCSA)	5
	GRUPO MGO, S.A.	3
	ASEM VISIONES COMPETITIVAS, S.L.	3
	PREVING CONSULTORES NORTE, S.L.	1
	MC SPA SOCIEDAD DE PREVENCIÓN, S.L.U.	1
	LAUTALAN, S.L.	1
CUALTIS, S.L.U.	1	
PZP-PZM	OSAKIDETZA SERVICIO VASCO DE SALUD	11
	OSARTEN	9
	INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL - INDESA	6
	ARCELOR MITTAL S.L	3
	EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO ADMON GRAL	2
	PRODUCTOS TUBULARES, S.A.	2
	INDUSTRIAL DE TURBO PROPULSORES (ITP)	2
	UPV/EHU	2
	INSTITUTO FORAL DE ACCION SOCIAL (IFAS)	1
TUBOS REUNIDOS INDUSTRIAL, SLU	1	

3. EMAITZAK

2018an jasotako LGS guztien banaketa eta horien emaitza ikusten da 7. taulan.

Susmoak Gizarte Segurantzian tramitatu aurretik, jasotako kasu bakoitzak Cepross sisteman laneko gaixotasunen partereren bat zuen egiaztatu zen. 2018. urtean, hori gertatu zen 17 jakinarazpenetan, eta ez ziren, ondorioz, tramitatutako jakinarazpen moduan zenbatu (13 PZ jatorrikoak ziren eta 4 O jatorrikoak).

Metodologiaren atalean azaldu dugun moduan, baztertzeko beste irizpide batzuk erabili ziren (amaitu gabeko diagnostikoak, aurrez tramitatutako kasuak, kontingentzia profesioletarako eskubiderik ez zuten langileak eta tramitazioarekin jarraitzeko interesik ez zutenak), eta irizpide horien ondorioz beste 56 jakinarazpen ez ziren Gizarte Segurantzian tramitatu.

Guztira, 73 espediente baztertu ziren eta ez ziren baloratzeko tramitatu Gizarte Segurantzian; horietatik, PZ jatorria zuten 33k eta O jatorria 40k.

Txosten hau idazteko datu-bilketa egitean, 28 susmo zeuden abian (27 O jatorrikoak eta 1 PZ jatorrikoa), eta 96 jakinarazpenen emaitza jakitea falta zen (0 jatorrikoak dira gehienak, konplexutasun handiko lana baita diagnostikoak egitea).

7. taula. Jakinarazpenen guztirako kopurua eta emaitza jatorriaren arabera. EAE, 2018.

	ALDEZ AURRETIK LG	ARIBIDEAN	ERANTZUNAREN ZAIN	LG ONARTUA	LG ONARTU GABEA	TOTAL
PZan JATORRIA	13	1	29	142	120	305
OSAKIDETZAN JATORRIA	4	27	67	44	13	155
GUZTIRA	17	28	96	186	133	460

Horrenbestez, 460 jakinarazpen jaso dira 2018an, eta horietatik 387 LGS jakinarazpen (kopuru osoaren % 84) izapidetu dira Gizarte Segurantzian, baloratuak izateko.

Hemendik aurrea, Gizarte Segurantzian izapidetutako jakinarazpenak soilik zenbatuko ditu analisi deskriptiboak.

3.3 2018. URTEAN IZAPIDETUTAKO LGS JAKINARAZPENEN ANALISIA


3.3.1 2018AN IZAPIDETUTAKO LGS JAKINARAZPENAK: LURRALDEA ETA JATORRIA

7. irudian ikus daitekeen moduan, hau izan da 2018an Gizarte Segurantzari izapidetu diren 387 jakinarazpenen banaketa: Bizkaia (203), ondoren Gipuzkoa (121) eta Araba (63).

Aurreko urte guztietan gertatu den moduan, prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboen abiatutako jakinarazpenak izan dira gehien-gehienak: 125 jakinarazpen Bizkaian, 98 jakinarazpen Gipuzkoan, eta 48 Araban. Nabarmentzekoa da jatorri hori izan duten jakinarazpenek behera egin dutela Gipuzkoan 2017. urtearekiko, 132 jakinarazpenetik 98ra.

Osakidetzako langile fakultatiboek 78 jakinarazpen abiatu zituzten Bizkaian, eta lurralde hori izan zen, beraz, Osakidetzako jakinarazpen gehien jaso zituena, Gipuzkoan 23 jakinarazi baitziren eta Araban 14.

7. irudia. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2018.



3. EMAITZAK

8. taulan, jasotako jakinarazpenak agertzen dira sorburuaren eta jatorriaren arabera sailkatuta. Izapidetutako LGSak jatorriaren arabera aztertuz gero, ikusten da gehienak prebentzio-zerbitzuetatik jasotakoak direla (271), eta Arreta Espezializatuak daudela atzetik (107). Nabarmentzekoa da Lehen Mailako Arretan aritzen diren langile fakultatiboek abiatutako jakinarazpenen kopuru urria (5).

8. taula. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2018

	OSAKIDETZAN JATORRIA			PREBENTZIO ZERBITZUAN JATORRIA		GUZTIRA
	ARRETA ESPEZIALIZATUA	LEHEN MAILAKO ARRETA	IKUSKARITZA MEDIKOA	PREBENTZIO ZERBITZUAN JATORRIA	LAN OSASUNA	
ARABA	12	1	1	48	1	63
BIZKAIA	73	4	1	125	0	203
GIPUZKOA	22	0	1	98	0	121
GUZTIRA	107	5	3	271	1	387

Osakidetzako AEtik abiatutako jakinarazpenei begiratzuz gero, ikusten da Bizkaian eta Gipuzkoan jakinarazpenen kopuruak gora egin duela aurreko urtearekiko, 73 jakinarazpen egin baitira Bizkaian eta 22 Gipuzkoan. Arabak eutsi egin dio 12 jakinarazpeneko kopuruari.

Sareko 20 zentrotatik abiatu dira Osakidetza jatorriko jakinarazpenak, baina Osakidetza jatorriko LGS jakinarazpenen % 75 ospitale hauetan egin ziren: Galdakao-Usansolo ospitalea, Basurto Unibertsitate Ospitalea, Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea eta Donostia Ospitalea.


3.3.2 2018AN IZAPIDETUTAKO LGS JAKINARAZPENAK: LURRALDEA ETA SEXUA

Gizonen gaineko jakinarazpenen kopurua handiagoa izan da hiru probintzietan. Horrela ikus daiteke 8. irudian. Guztira 387 jakinarazpen egin ziren; horietatik, % 66 gizonena izan zen (256), eta % 34, emakumeena (131). Urtetik urtera, behera egin du gizonen eta emakumeen ehunekoen aldeak, jakinarazpenen kopuruak behera egin baitu gizonen artean eta gora emakumeen artean.

3. EMAITZAK

Emakumeen gaineko jakinarazpenen kopuruak gora egin du, batik bat Bizkaian, eta hau da lurraldeen eta sexuaren arabera banaketa, emakumeei dagokienez: % 43 Bizkaian, % 33 Araban, eta horiengandik urrun, % 18 Gipuzkoan.

8. irudia. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sexuaren arabera. EAE, 2018.




3.3.3 2018AN IZAPIDETUTAKO LGS JAKINARAZPENAK: DIAGNOSTIKOAK ETA 1299/2006 ED TALDEAK

9. irudian ikus daiteke nola banatu diren 1299/2006 ED-ko 6 taldeetatik jasotako jakinarazpenak 2018. urtean. Kopuru handienak dituzte 2. taldeko jakinarazpenek, eragile fisikoek sortutako LGak (190 jakinarazpen) eta substantziak eta agenteak arnasteagatik sortutako LGak (97 jakinarazpen).

3. EMAITZAK

9. irudia. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua 1299/2006 ED-ko taldeen arabera. EAE, 2018.



LGS jakinarazpenen diagnostikoak azaltzen ditu 10 irudiak. Diagnostiko klinikoaren multzokatzeak dira beste arnas gaixotasun batzuk, gaixotasun muskuloeskeletikoak, gaixotasun infekziosoak eta gaixotasun dermatologikoak.

Hipoakusia izan zen, alde handiz, 2018an gehien egin zen diagnostikoa, 101 jakinarazpen egin baitziren; haren atzetik dago arnas gaixotasunen multzoa (63 jakinarazpen), gaixotasun muskuloeskeletikoak (55), pneumokoniosiak (49), gaixotasun infekziosoak (41), tumoreak (36), karpoko kanalaren sindromea (26), gaixotasun dermatologikoak eta ahots-kordetako noduloak (8 jakinarazpen horietako bakoitzak).


Hipoakusien proportzioa, izapidetutako LGS guztiekiko, jakinarazitako guztien % 47koa izan zen 2017an, eta % 26ra jaitsi da 2018an.

Beste arnas gaixotasun batzuen multzoan sartu dira errinitiseko 35 jakinarazpen, asmako 15 jakinarazpen, asbestorik gabeko 9 pleura-afekzio eta kimikoen ondoriozko 4 arnas afekzio.

3. EMAITZAK

Gaixotasun infekziosoen multzoari begirata, hauek nabarmendu behar dira: gastroenteritis-agerraldiek eragindako 19 jakinarazpen, eta sarnaren 14 jakinarazpen, 7 agerralditan banatuta, 3 Bizkaian eta 4 Araban.

10. irudia. Jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera. EAE, 2018.



Nabarmendu behar da tumoreen LGS jakinarazpenen 36 kasu jakinarazi zirela 2018an, 2017an baino 6 gehiago. Asbestoa izan zen eragile nagusia gehienetan, eta 9. taulan ikus daitezkeen moduan, emakumeen kasuak izan ziren horietako 2.

Adierazi behar da 2018an Osalan erakundeak "Euskal Autonomia Erkidegoan lanean sortutako minbiziaren zaintza epidemiologikoa egiteko programa" abiatu zuela lanean sortutako mesoteliomaren, barrunbe eta sinu paranasalen eta gibelesko angiosarkomaren intzidentziak eta joera ezagutzeko, lanean izandako esposizioari egotzi daitezkeen kasuak identifikatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan duten profila zehazteko. Pleurako 14 tumore eta barrunbe eta sinu paranasalen 5 tumore hauteman ziren, eta bide horretatik sartu dira programan.

3. EMAITZAK

9 taula. Jakinarazpen-kopurua CIE ohikoenen arabera eta sexuaren arabera. EAE, 2018

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
HIPOAKUSIA	99	2	101
GAIXOTASUN OSTEOMUSKULARRAK	34	21	55
PNEUMOCONIOSIA	45	4	49
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK	5	36	41
TUMOREAK	34	2	36
RINITISA	2	33	35
KANPOKO TUNELAREN SINDROMEA	10	16	26
ASMA	12	3	15
BESTE ARNAS GAIXOTASUNAK	11	2	13
AZALEKO GAIXOTASUNAK	4	4	8
AHOTS-KORDETAKO NODULOAK	0	8	8

Diagnostikoen maiztasunetan aldeak egon ziren sexuen arabera. Hauek izan ziren emakumeengan gehien errepikatu ziren patologia: gaixotasun infekziosoak (36), errinitisak (33), gaixotasun muskuloeskeletikoak (21) eta karpoko kanalaren sindromea (16). Gizonei erreparatuta, hauek izan ziren, 2018. urtean ere, jakinarazpenetan gehien errepikatu ziren diagnostikoak: hipoakusiak (99), pneumokoniosiak (45) eta gaixotasun muskuloeskeletikoak eta tumoreak (34 talde bakoitzean).

3.3.4 2018AN IZAPIDETUTAKO LGS JAKINARAZPENAK: AGENTE ERAGILEA

Jakinarazpen gehienetako diagnostikoa entzumen-galera edo hipoakusia izan zenez, agente eragile nagusia zarata izan zen. 10. taulan ikus daiteke 101 jakinarazpen izan zituela. Asbestoa izan zen, 48 jakinarazpen bilduta, bigarren eragile nagusia, eta horien atzetik gorputz-jarrera behartuak eta mugimendu errepikariak (44) eta silizea (18). Emakumei erreparatuta, gorputz-jarrera behartuena izan zen agente eragile nagusia (35), eta haren atzetik datoz pisu molekular handiko substantziak (34), birus enteriko bat (19) eta sarcoptes scabiei, sarna sortzen duen agentea (13).

3. EMAITZAK

10. taula. Jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta sexuaren arabera. EAE, 2018

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
ZARATA	99	2	101
POSTURA BEHARTUAK	44	35	79
ASBESTOA	48	3	51
PISU MOLEKULAR HANDIKO SUBSTANTZIAK	8	34	42
ENTERITIS BIRALA	0	19	19
SILIZEA	18	2	20
SARCOPTES SCABIEI	1	13	14
PISU MOLEKULAR TXIKIKO SUBSTANTZIAK	8	5	13
AHOTSAREN ESFORTZU JARRAITUAK	0	8	8
METALAK (Cr Ti Fe)	2	1	3
BIRUSA (Paperas, Zoster, Adenovirus)	2	3	5
EGUR AHUTSA	3	0	3
COXIELLA BURNETTI	0	1	1
LEGIONELLA	1	0	1
LEPTOSPIRA INTERROGANS	1	0	1
NITRODERIBATUAK	0	1	1
KARBONO OXIDOA	1	0	1
POLIURETANOA	1	0	1

LGSen jatorriari dagokionez, eta 11. taulan ikus daitekeen moduan, PZetatik jaso ziren zaratek eta jarrera behartuek eragindako jakinarazpen gehien-gehienak.

Bat izan ezik, Osakidetzatik jaso ziren Asbestoa agente eragile duten jakinarazpen guztiak. Prebentzio-zerbitzuek jakinarazi zituzten agente infekziosoen ondorioz egindako jakinarazpen guztiak.

3. EMAITZAK

11. taula. Jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2018.

	OSAKIDETZA JATORRIA	PZ-LOU JATORRIA	GUZTIRA
ZARATA	4	97	101
POSTURA BEHARTUAK	3	76	79
ASBESTOA	50	1	51
PISU MOLEKULAR HANDIKO SUBSTANTZIAK	4	38	42
ENTERITIS BIRALA	0	19	19
SILIZEA	13	7	20
SARCOPTES SCABIEI	0	14	14
PISU MOLEKULAR TXIKIKO SUBSTANTZIAK	8	5	13
AHOTSAREN ESFORTZU JARRAITUAK	2	6	8
METALAK (Cr Ti Fe)	3	0	3
BIRUSA (Paperas, Zoster, Adenovirus)	0	5	5
EGUR AHUTSA	3	0	3
COXIELLA BURNETTI	0	1	1
LEGIONELLA	0	1	1
LEPTOSPIRA INTERROGANS	0	1	1
NITRODERIBATUAK	0	1	1
KARBONO OXIDOA	1	0	1
POLIURETANOA	0	1	1

3. EMAITZAK


3.3.5 2018AN IZAPIDETUTAKO LGS JAKINARAZPENAK: SEKTOREAK

321 jakinarazpen aztertu ziren, horiek baitzuten, Gizarte Segurantzak izapidetutakoen artean, JESN bakarra, sektoreka multzokatu ahal izateko. Jakinarazpenak sektoreka aztertuz gero, ikusten dugu industriaren sektoreak eta zerbitzuen sektoreak jakinarazpenen % 44 (140 eta 141) hartu zituztela, eraikuntzaren sektoreak % 9 (29) eta lehen sektoreak % 3 (11).

11. irudian ikus daitekeen moduan, gizonen gainean sektoreka egin ziren jakinarazpenek erakusten digute gizonen 131 kasu jakinarazi zirela industria-sektorean, 33 zerbitzuen sektorean, 29 kasu eraikuntzaren sektoreak eta 7 lehen sektorean.

Emakumeen gaineko jakinarazpenen banaketari begiratuta, 108 kasu jakinarazi ziren zerbitzuen sektorean, beste 9 industria-sektorean eta 4 lehen sektorean. Ez zen emakumeen jakinarazpenik egin eraikuntza-sektorean.

11. irudia. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta sexuaren arabera. EAE, 2018.



3. EMAITZAK

Sektore bakoitzean gehien emandako diagnostikoei begiratuta, eta industria-sektoreko entzumen-galera edo hipoakusia kontuan hartu gabe, patologia askotarikoak jakinarazi ziren industriaren eta zerbitzuen sektoreetan. Hala ikus daiteke 12. taulan.

Zerbitzuen sektorean, arnas gaixotasunak nabarmentzen dira (51), infekziosoak (38) eta muskuloeskeletikoak (25). Industria-sektorean, arnas gaixotasunez (22) eta muskuloeskeletikoez gainera (22), pneumokoniosiak nabarmentzen dira (11).

12. taula. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera. EAE, 2018.

	HIPOAKUSIA	ARNAS APA-RATOKOAK	OSTEOMUS-KULARRAK	PNEUMOCONIOSIA	INFEKZIOSOAK	TUMOREAK	KTS	AZALEKOAK
LEHEN SEKTOREA	5	3	0	0	1	0	1	1
INDUSTRIA	72	22	22	11	2	8	9	5
ERAIKUNTZA	17	6	4	5	0	1	1	0
ZERBITZUAK	6	51	25	1	38	4	15	2

‘Arnas’ atalean arnas gaixotasunak eta ahots-korden noduloak multzokatu dira.

Jakinarazpenak sektorearen eta sexuaren arabera gaixotasun-taldeetan nola banatu ziren aztertuta, esan behar da, 13. taulan ikus daitekeen moduan, gizonen artean industria-sektoreko entzumen-galerak izan zirela ohikoenak (72). Era berean, gizonengan, industria-sektoreko 21 arnas gaixotasunak eta 19 gaixotasun muskuloeskeletikoak nabarmendu ziren.

Emakumeei begiratuta, alde handiz gailendu dira sektore-zerbitzuko 45 arnas gaixotasunak eta 35 gaixotasun infekziosoak; gainerako sektoreetan, kasu gutxi izan dira.

3. EMAITZAK

13. taula. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera, sexuka. EAE, 2018.

		HIPOAKUSIA	ARNAS APA-RATOKOAK	OSTEOMUS-KULARRAK	KTS	TUMOREAK	INFEKZIO-SOAK	AZALEKOAK
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	3	3					1
	INDUSTRIA	72	21	19	6	8	2	3
	ERAIKUNTZA	17	6	4	1	1		
	ZERBITZUAK	6	6	10	4	4	3	
EMAKUMEAK	LEHEN SEKTOREA	2			1		1	
	INDUSTRIA		1	3	3			2
	ERAIKUNTZA							
	ZERBITZUAK		45	15	11		35	2

3.3.6 2018AN IZAPIDETUTAKO LGS JAKINARAZPENAK: ADINA ETA SEXUA

LGS jakinarazpenen adin-tarte ohikoena 30-49 urte-bitartekoena izan da, 154 jakinarazpenekin, eta hauek izan dira hurrengoak: 50-64 adin-bitartekoena, 134 jakinarazpenekin, 65 urtetik gorakoena, 74 jakinarazpenekin, eta 16-29 adin-bitartea, 25 jakinarazpenekin.

14. taulan ikus daitekeen moduan, sexuaren aldagaiak aldatetako dakarzkio jakinarazpenen adinaren arabera banaketari. Langile emakumezkoen artean, maiztasun handieneko adin-tartea 30-49 urtekoena izan zen (78 jakinarazpen), eta gizonen artean, berriz, 50-64 urte-bitartekoena (105 jakinarazpen).


3. EMAITZAK

14. taula. Jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2018

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
16-29	7	18	25
30-49	76	78	154
50-64	105	29	134
≥65	68	6	74

12. Irudian ikus daitekeen moduan, deigarria da 65 urtetik gorakoen artean 74 kasu jakinarazi izana, lan-egoera ez aktiboan zeuden garaian; era berean, nabarmentzekoa da kasuen kopurua ia berdin-berdina dela 30-49 bitarteko gizonen eta emakumeen kasuan.

12. irudia. Jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2018.



3.3.7 2018AN IZAPIDETUTAKO LGS JAKINARAZPENAK: EBAZPENAK

13. irudian ikus daitekeen moduan, laneko gaixotasunaren susmoa zekarten 25 kasu zeuden txosten hau egiteko datu-bilketan osatzean.

2018. urtean, GSMI eta/edo GSIN erakundeek erantzuna jaso zen Gizarte Segurantzari igorritako jakinarazpenen % 82,6an, aurreko urtean izandako ehuneko antzekoan. Izapidetutako jakinarazpenen % 17,4 Gizarte Segurantzaren erantzunaren zain zauden.


Erantzuna jaso zuten 362 jakinarazpenek; horietatik, LG aitorpena izan zuten 167 kasuk eta ez zuten LG aitorpenik jaso 132 kasuk. Hau da, LG aitorpena jaso zuten kasuen % 46,1ek, eta ez zuten LG aitorpena jaso kasuen % 36,5ek.

Prebentzio-zerbitzuetan izandako susmoek laneko gaixotasun izatearen onarpen edo aitorpen handiagoa izan zuten Osakidetzan izandakoek baino; izan ere, prebentzio-zerbitzuetatik egindako 308 jakinarazpenen % 55 aitortu zen (170), eta Osakidetzak egindako 96 jakinarazpenen % 39,5 onartu zen (38).

Hala ere, bi jatorri horiek Gizarte Segurantzaren izandako harrera ere desberdina izan zen; izan ere, prebentzio-zerbitzuek egindako jakinarazpenen % 6,6 zeuden erantzuteko zain (18), eta Osakidetzak egindako jakinarazpenen kasuan, berriz, % 50 ziren (45). Horren arrazoia izan daiteke diagnostikoez ez dutela konplexutasun bera batean zein bestean.

3. EMAITZAK

13. irudia. Jakinarazpenen eta ebazpenen kopuruak. EAE, 2018



Sexuaren arabera aztertuz gero Gizarte Segurantzak tramitatutako susmo-diagnostikoak, ikusten da gizonen artean izapidetutako jakinarazpenen % 46 onartu zela LG gisa, eta emakumeen artean, berriz, izapidetutako jakinarazpenen % 37,4 onartu zela LG gisa.

Diagnostikoen multzoek sexuaren arabera izan duten onarpeneren eta baztertezen datuak begiratuta, 15. taulak ikus daiteke onarpena % 50ekoa izan zela gizonen kasuan eta % 22koa emakumeen kasuan. Karpoko kanalaren sindromea izan da horren salbuespena. "Beste arnas gaixotasun batzuk" izeneko multzoan, gizonen kasuen % 53,8 onartu zen, eta emakumeen kasuen % 2,9. Gaixotasun infekziosoen multzoan, LG aitortpena izan zuen gizonen kasuen % 20k, eta emakumeen % 62,9ri onartu zitzaion LG izaera.

2018. urtean 36 tumore-kasu hartu ziren, eta 13 bakarrik ebatzi dira; horietatik, 9ri onartu zaie LG izaera eta 3 baztertu dira. Izapidetzeko edo ebazteko zain daude gainerakoak.

3. EMAITZAK

'Beste arnas gaixotasun batzuk' multzoan baztertutako kasuei dagokienez, nabarmendu behar da emakumeei baztertu zaizkien 31 errinitis kasu, gaixotasun arruntak direla ebatzi delako.

Arrazoi honegatik baztertu dira gizonei onartu ez zaizkien hipoakusien % 46: 'ez da arriskua egiaztatzen dokumentazioan'.

Amiantoarekin zerikusia duten 51 gaixotasun jakinarazi dira; horietatik, 18 onartu dira eta 4 baztertu.

15. taula. Onartutako eta baztertutako jakinarazpenen zenbatekoak eta ehunekoak GNS ohikoenen arabera eta sexuaren arabera. EAE, 2018

	ONARTUTAKOAK		BAZTERTUAKOAK		ONARTUTAKOEN %		BAZTERTUTAKOEN %	
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
HIPOAKUSIA	69	2	24	0	74,2	100,0	25,8	0,0
BESTE ARNAS GAIXOTASUNAK	7	1	6	33	53,8	2,9	46,2	97,1
GAIXOTASUN OSTEOMUSKULARRAK	15	4	15	14	50,0	22,2	50,0	77,8
PNEUMOCONIOSIA	10	2	5	0	66,7	100,0	33,3	0,0
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK	1	22	4	13	20,0	62,9	80,0	37,1
TUMOREAK	9	0	4	0	69,2	—	30,8	—
KANPOKO TUNELAREN SINDROMEA	6	9	4	7	60,0	56,3	40,0	43,8
AZALEKO GAIXOTASUNAK	1	1	1	2	50,0	33,3	50,0	66,7
AHOTS-KORDETAKO NODULOAK	0	8	0	0	—	100,0	—	0,0

4. KONKLUSIOAK

- 2017. urtean hartutako LGS jakinarazpenen kopuru ia bera jaso da 2018an, eta eten egin da azken bost urteotan jakinarazpenen kopuruak izan duen beherakada, susmoen kopuruak Osakidetzan izan duen gorakadaren harian.
- Gizonek duten jakinarazpen-tasa emakumeena baino nabarmen handiagoa da urte guztietan; hala ere, emakumeen intzidentzia orain arteko handiena izan da 2018an.
- Prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboak dira jakinarazle nagusiak urte guztietan. 2018. urtean, 24 prebentzio-zerbitzuek egin dituzte LGS jakinarazpenak prozedura hori erabilita. Jakinarazpen gehienak kanpoko prebentzio-zerbitzu bakar batetik jaso dira.
- 2:1 proportzioa dute PZ jatorriko LGS-ek, 0 jatorria dutenekiko. Osakidetzatik AE jatorriarekin egin diren jakinarazpenen kopurua 145 kasura igo da 2018an, eta murriztu egin da Osakidetzatik LM jatorriarekin egin diren jakinarazpenak, 6 kasu izan baitira.
- 2018an, errepikatu egin da, 2017. urtearekiko, industria-sektorean lan egin, 50 eta 64 urte bitarteko adina izan eta entzumen-galera edo hipoakusia duten gizonen gaineko jakinarazpen-profila.
- Emakumeei begiratura, profila hau gailendu da 2018an: 30-49 urte bitarteko adina, zerbitzu-sektoreko langilea eta arnas gaixotasuna edo gaixotasun infekziosoa duena.
- Hipoakusien proportzioa, izapidetutako LGS guztiekiko, % 47tik % 26ra jaitsi da 2018an. Gainerako diagnostikoei begiratura, nabarmentzekoa da arnastuz hartutako gaixotasunen ondoriozko jakinarazpenak, eta horietatik, batik bat asbestoaren eraginez sortutako 32 pneumokoniosi kasuak.
- Gaixotasun infekziosoen ondoriozko LGS-ek gora egin dute 2018. urtean (21 kasutik 41era), eta hori bera gertatu da beste arnas gaixotasun batzuekin (17 kasutik 63ra). Lantokietan gertatutako agerraldiak izan dira horren eragile. Sarnaren 14 LGS jakinarazpenak langileengan eragina izan duten 7 sarna-agerraldien ondoriozkoak izan dira, eta hesteetako infekzioen 19 LGS jakinarazpenak lantoki batean izandako gastroenteritis-agerraldi baten ondorioz sortu dira. Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoaren Zerbitzuaren laguntzarekin ikertzen dira agerraldiak. Horrez gainera, pisu molekular handiko substantziek eragindako errinitis alergikoaren 35 kasu pilatu dira Bizkaiko lantoki batean, eta egoera horri dagokion ikerketa egin behar izan da.

4. KONKLUSIOAK

- Pleurako 14 tumore eta sinu eta barrunbe paranasalen 5 tumore izan dira, eta "Euskal Autonomia Erkidegoan lanean sortutako minbiziaren zaintza epidemiologikoa egiteko programan" barneratu dira. Era berean, bronkio eta birrikako 17 neoplasia-kasu izan dira.
- Gizarte Segurantzak, 2018. urtean, izapidetutako LGS jakinarazpen guztien % 46 aitortu du laneko gaixotasun gisa, eta ez ditu laneko gaixotasun gisa aitortu % 36,5.
- Emakumeen jakinarazpenen onarpen edo aitortpenak % 57tik % 39ra egin du behera 2018an.
- Aurreko urteetan gertatu den moduan, Osakidetza sorburu duten jakinarazpenek onarpen-ehuneko txikiagoa izan dute (% 39,5), PZetatik jasotako jakinarazpenekin alderatuta (% 55).



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales

ZERBITZU OROKORRAK

Dinamita bidea z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. : 944 032 190

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita bidea z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. : 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

José Atxotegi 1
01009 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. : 945 016 800

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo Bidea zg
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. : 943 023 262

www.osalan.euskadi.eus